

5 GIPUZKOA

Deba ibaiaren goiko tartea



Ingurumen-garrantzia

Deba ibaiaren goiburua Aizkorri-Aratz Natura Parkearen inguruetan dago. Ekologia balio handiko natura eremua, non uztartzen diren,

batetik, pago, haritz azidofilo eta atlantikoko harizti mistoen interes botanikoko eremu zabalak, eta, bestetik, paisaia zoragarriak eta fauna

ugaria. Nabarmentzekoa da ongi kontserbatutako ibar basoa osatzen duen haltzadi kantauriarra.

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

→ 4,8 km



Ordu 1 eta 30 min



Hurbileko herria:
Leintz-Gatzaga



Ibaia:
Deba



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



685 m



179 m



601 m



178 m



**DEBA IBAIAREN
GOIKO TARTEA**

Deba ibaiaren goiko tartea



Non dagoen eta nola heldu

Deba ibaiaren goiburua Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hego-mendebaldeko koadrantean dago, Debagoiena eskualdeko Leintz-Gatzaga udalerriko lurretan. Ibilbidea herri horretan hasiko dugu, Arabako eta Gipuzkoako mugan, Deba ibaiaren gaineko zubian GI-627 errepidea Arlaban mendatean hartuta.

GI-627an, ibaiaren gaineko zubitik hasten da bidexka estu bat ibaiaren ezker aldetik doana, urtegitik hiribarnean zegoen antzinako indarretxera ura zeraman harritzko erreten zaharrarean.

400 bat metro egindakoan, ongi kontserbatutako ibar baso batean, non haltzak, pagoak eta haritzak nagusi diren, ibilguaren haitzari itsatsitako harritzko antzinako ur presaraino helduko gara.

Ibilbidean zehar, bi erreka txiki igaro beharko ditugu, beraz, kontu handia izango dugu labainketak direla-eta.

Ibar ezkerretik jarraiki, uretan gora, eta beste erreka bat igarota, ibai gaineko hormigoizko plataformara helduko gara.

Puntu horretan ur kantariak alaituko digu haltzez eta lizarrez osatutako ibar basoaren irudi zoragarria.

Puntu horretatik igoko gara erreken ezkerretik pista batera heldu arte, eta ondoren ezkerretara joaz, kilometro eta erdi gorago aurkituko dugu Deba ibaiaren sorburua.

Bertatik itzuliko gara eta pistari jarraiki helduko gara errepidera eta hartan, eskuin aldera hartuta 300 bat metro eginda helduko gara abiapuntura.

Edozein urtarotan egin daiteke ibilbidea. Uda partean errazago igaroko ditugu ibiak. Euri sasoian kontu handiz ibili behar dugu, txirristadak direla eta.

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX


Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:







Wikiloc




Deba ibaiaren goiko tartea



Deba ibaiaren goiko tartea



Deba ibaiaren goiko tartea



Deba ibaiaren goiko tartea

